# Extremadurako Biltzarreko Mahaia bisitan etorri da Eusko Legebiltzarrera

## Quirogak adierazi du bere nahia dela Eusko Legebiltzarra Espainiako beste legebiltzarrei irekita egotea

## Esperientziak partekatzearen alde azaldu da, betiere helburutzat harturik herritarren arazo errealen soluzioa

## Dei egin du legebiltzar autonomikoek beren aukerak aprobetxatu ditzaten ordezkatzen duten gizartearen onerako lan egiteko.

Eusko Legebiltzarreko presidente Arantza Quirogak eta Ganberako Mahaiak harrera egin die gaur goizean beren kide extremadurarrei, bisitan etorri baitira Eusko Legebiltzarrera honek gonbidatuta.

Arantza Quirogak eta mahaikideek ongietorria adierazi die Eusko Legebiltzarreko harrera-ekitaldietako aretoan. Bileran euskal legebiltzarburuak agerian utzi ditu bi legebiltzarren artean dauden lokarriak.

"Bisita hau ez da egintza protokolorio bat gehiago" –esan du Quirogak–. "Adierazten du nahi dugula Eusko Legebiltzarra Espaniako beste legebiltzarrei irekita egotea, haiekin harremanak lantzeko, haien esperientziak partekatzeko eta haiengandik ikasteko, eta denon artean erantzuna emateko Extremadurako eta Euskadiko legebiltzarretako ordezkariek ziur asko izango dugun kezka komun bati: legebiltzar autonomikoak erreferente bilakatzea herritarren arazo errealen soluzioa bultzatzeko".

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak zera azaldu du: "Extremadurako Biltzarra eta Euskadiko Ganbera elkarrekin ari gara lanean COPREPAn (Espainiako Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarra, gaur egun Extremadurako Biltzarra buru duena), eta CALREn (Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarra), eta bi erakunde horien helburua da herritarren atentzioa hobetzea, gure asmoa baita herritarrentzat probetxugarri izatea dituzten kezka ugariak konpontze aldera".

"Legebiltzarreko lanak eskatzen digu gutako guztiok etengabe ahalegintzea gure jarduna herritarrek biltzar hauetan jarrita dauzkaten itxarokizunei erantzuteko gai izan dadin. Egon seguru nahi dugun etorkizuna ere denon artean irabaziko dugula, lan eginez biharko egunak dakarzkigun aukerak alferrik ez galtzeko, eta betiere pentsatuz, soil-soilik, ordezkatzen dugun gizartearen onean".

Durante la visita de la Mesa de la Asamblea de Extremadura a la Cámara Vasca

## Quiroga expresa su deseo de tener un Parlamento Vasco abierto al resto de Parlamentos de España

## Apuesta por compartir experiencias para impulsar la solución de los problemas reales de los ciudadanos

## Llama a no desaprovechar las oportunidades que se les presentan a los parlamentos autonómicos para trabajar por el bien de la sociedad a la que representan

La presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, junto con la Mesa de la Cámara, han sido esta mañana anfitriones de sus homólogos extremeños, que han cursado una visita al Parlamento Vasco invitados por la Cámara vasca.

Arantza Quiroga y el resto de miembros de la Mesa les han dado la bienvenida en el salón de recepciones del Parlamento Vasco, momento en el que la presidenta de la Cámara vasca ha aprovechado para resaltar los lazos de unión entre ambos parlamentos.

"Esta visita no constituye un acto protocolario más" –ha dicho Quiroga–. "Expresa nuestro deseo de tener un Parlamento Vasco abierto al resto de parlamentos de España, con los que trenzar contactos, compartir y aprender de las experiencias ajenas, y dar respuesta a una preocupación común que, a buen seguro, tenemos los representantes de los legislativos extremeño y vasco: hacer de los parlamentos autonómicos referentes para impulsar la solución de los problemas reales de los ciudadanos".

La Presidenta del Parlamento Vasco ha puesto de manifiesto cómo la Asamblea de Extremadura y la Cámara vasca “trabajamos conjuntamente en la COPREPA (Confederación de Presidentes de Parlamentos Autonómicos españoles), que preside ahora la Asamblea de Extremadura, y en la CALRE (Confederación de Asambleas Legislativas Regionales de Europa), organismos destinados a la mejora de la atención a la ciudadanía, a la que aspiramos serle útil para resolver sus numerosas inquietudes".

"El trabajo parlamentario exige un esfuerzo constante por parte de todos y cada uno de nosotros, para que la actividad que desarrollamos responda a las expectativas que en nuestras cámaras tienen depositadas los ciudadanos. Tengan seguro que el futuro que nos espera también lo vamos a ganar juntos, trabajando para no desaprovechar las oportunidades que nos depara el mañana, pensando, como siempre, única y exclusivamente en el bien de la sociedad a la que representamos".